

DATU PERTSONALEN BABESERAKO POLITIKA

Har ezazu beta eta irakur ezazu arretaz dokumentu hau. Ez zalantzarik izan ulertzen ez duzunari buruzko azalpenak egiteko:

Datu Pertsonalen Babesari Buruzko Oinarrizko Informazioa

Arduraduna	BBVASEGUROS, S.A. de Seguros y Reaseguros ("BBVA Seguros") sozietatearen helbidea On Diego Lopez Haroko kale nagusia, 12, 48001 Bilbo duena, eta bulego nagusia calle Azul, nº4 28050 Madril helbidean duena. Helbide elektronikoa: seguros@bbvaseguros.es
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">a) Kontratatuta duzun edo eskatzen duzun aseguruia kudeatzea, eta kontratua osorik betetzen dela bermatzea.b) Berraseguru- eta koaseguru-kontratuak kudeatzea.c) Legezko betebeharrak betetzea.d) Beste erakunde aseguratzailerik eta aseguratzailerik sektorearekin lankidetzan aritzen diren erakundeekin komunean diren fitxategietako informazioa kudeatu eta kontsultatzea, estatistika, aktuariotza eta iruzurra-prebenitzeko asmoz, baita aseguratzailerik teknikaren ikasketak egiteko ere.e) Arrisku-profilak egitea.f) Zure datu pertsonalen berri ematea BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. ("BBVA") erakundeari.g) Azterketa estatistikoak eta analisi-ereduak sortzea. <p>Aseguruduna edo onuraduna bazara (aseguruaren eskubidearen titularra), baina aseguruaren hartzailea (aseguruia kontratatzen duena) ez bazara, zure datu pertsonalak BBVA Seguros-en bezero den hartzaile batekin daukazu harreman juridikoagatik esku hartzen duzun kontratua kudeatzeko tratatuko ditugu.</p>
Eskubideak	Zure datuak zureak dira eta zuk kontrolatzen dituzu. Horregatik, nahi duzunean sartu ahal izango zara eta datuak zuzendu eta baliogabetu, eta baita beste eskubideak eskatu ere, "Informazio gehigarria" atalean azaltzen den moduan.
Informazio gehigarria	BBVAren Datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago eta xehetasun handiagoaren kontsultatzeko, joan Informazio gehigarria atalera.

[] Nire identifikazio-datuak, soziodemografikoak, kontratuaren informazio ekonomikoa, kontratatutako bermeak, prestazioen ordainketak, muga-eguneratzeak, erreskateak eta errenta BBVAri komunikatzea nahi dut, BBVA bezero gako hobespenen eta onespenei esparruan, tratatu eta bere analisi- eta merkataritza-ereduetan sartzeko; produktuak eta zerbitzuak hobetu eta garatzeko eta estatistika- eta analisi-estatistikak egiteko; tratamendu horiek oinarri hartuta, eskaintza zehatzago bat egin ahal izateko bezero-profilak sortzeko; eta horrela, promozio- eta publizitate-ekintzak pertsonalizatzeko), BBVAren Pribatutasun-politikaren arabera (eskuragarri <https://protecciondedatos.bbva.es/> helbidean)

Helburu horietarako BBVAk zure datu pertsonalen tratamenduari dagokionez une oro konfiguratu dituen hobespenak errespetatuz tratatuko ditu zure datuak BBVAk.

+ info Informazio gehigarria sarrerako [Komunikatu zure datuak BBVAri](#) atalean.

Edozein unetan aldatu ahal izango duzu zure aukera, baita aukerak konfiguratu ere, app-aren edo zure gestore edo bulegoaren bitartez.

Gogorazten dizugu, ez duzula zertan helburu horretarako tratamendu hori aukeratu, eta, beraz, laukitxo hori markatzen ez baduzu, ez duzu aipatu komunikazioa onartuko, baina BBVA Seguros-ekin dituzun produktu eta zerbitzuek ez dute eraginik jasango.

Sinatze-prozeduran eskatutako gakoa sartzten duzunean Datu Pertsonalen Babesaren Politika onartzen duzu.

Datu pertsonalen babes-politikari buruzko informazio gehigarria

1. Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

BBVA SEGUROS, S.A. de Seguros y Reaseguros (“**BBVA Seguros**”), sozietatearen helbidea On Diego Lopez Haroko kale nagusia, 12, 48001 Bilbo duena, eta bulego nagusia calle Azul, nº4 28050 Madril helbidean duena.

Helbide elektronikoa: seguros@bbvaseguros.es

2. Nor da Datuen Babeserako Ordezkaria eta nola jar zaitezke berarekin harremanetan?

Datuen Babeserako Ordezkaria BBVA Seguros-eko bezeroen datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidea babesteaz arduratzen den pertsona da eta berea da datuak babesteko konpainiaren araudia betetzeko ardura.

BBVA Taldearen Datuen Babeseko Ordezkariekin jar zaitezke harremanetan helbide honetan: dpo.seguros@bbva.com

3. Zein datu pertsonal tratatzen ditugu, eta nola lortzen ditugu datuak?

BBVA Seguros-ek jarraian erakutsiko dizkizugun datuak tratatzen ditu. Batzuk zuk zeuk emandako datuak dira, zuri buruz jaso edo sortu dugun informazioa eta beste iturri batzuetatik eskuratutako informazioa baita ere.

(I) BBVA Seguros-eko bezeroa bazara:

a) Zuzenean ematen dizkiguzun datuak

BBVA Seguros-en gurekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuei dagozkien datuak tratatzen ditugu.

- **Identifikatzeko eta harremanetarako datuak:** izena, abizenak, argazkia, NAN, pasaportea edo AIZ, nazionalitatea, posta-helbidea, helbide elektronikoak, telefono finkoa, telefono mugikorra.
- **Sinadura-datuak:** eskuzkoa eta digitalizatua.
- **Kodeak edo identifikazio-datuak** erregistratutako erabiltzailearen eremuan sartzeko.
- **Datu soziodemografikoak:** adina, edo jaioteguna, sexua, helbidea, egoera zibila, familia-egoera, bizilekuak, ikasketak eta lanbidea edo kolektibo bateko kide izatea.
- **Kontratuaren datuak:** primak, aseguratutako kapitalak, zordunketa- eta ordainketa-kontuak, ezbeharrak, ordainketen edo abonuen aldizkakotasuna.
- **Kontratu kudeatzeko eta arriskua mugatzeko beharrezkoak diren aseguratutako ondasunaren datuak.**
- **Osasun-galdetegiaren bidez bildutako osasun-ohiturei (tabakoa, alkohola, kirola eta elikadura) buruzko datuak eta informazioa,** BBVA Seguros-ekin kontratatu nahi dituzun edo kontratatzen dituzun produktuak sinatzeko eta kudeatzeko beharrezkoak direnean.

b) Zuri buruz jaso edo sortu ditugun datuak:

- **BBVA Seguros-ek produktuak eta zerbitzuak kudeatzeko zure eskura jarritako kanalen erabileratik eratorritako datuak, besteak beste:** gailuaren IDa edo IP helbidea, nabigazioa eta sartutako edo erabilitako kanal digitalak.
- **Kontratutako produktu eta zerbitzuetatik eratorritako informazioa, besteak beste:** hainbat kanalen bidez BBVA Seguros-ekin duzun harremanarekin lotutako datuak, komunikazioetan egindako iruzkinetatik jasotako datuak edo txatbot-ekin izandako interakziotik eratorritako datuak.

c) Beste iturri batzuetatik jasotako datuak:

- **Madiva Soluciones, S.L.:** higiezinaren, ibilgailuen edo bestelako ondasun higigarrien balorazioari buruzko informazioa.

- **Publikoki atzi daitezkeen iturriak:** katastroa, egunkari eta aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Administrazio Publikoen ebazpenak, telefono-gidak, profesionalen elkargoetako pertsonen zerrendak.
- **Iruzurra prebenitzeko zerrenda ofizialak** (adibidez, Europar Batasunak, Nazio Batuen Erakundeak edo Ameriketako Estatu Batuetako Atzerriko Aktiboen Kontrolerako Bulegoak argitaratutakoak).
- **Sektore aseguratzailearen informazio-sistema komunak** Pribatutasun-politika honetako 4.(l).d) atalean xedatutakoak.
- **Aseguru-artekariak**, baldin eta aseguru-kontratua egiteko, garatzeko eta betetzeko beharrezko datuak ematen badizkigu, aseguru-araudiak ezarritako betebeharrak betetzeko.
- **Osasun profesionalak, ospitaleak eta beste osasun-zentro batzuk**, BBVA Seguros-ekin indarrean dagoen aseguru-polizaren zati gisa laguntza emandakoak: osasunari eta estalitako tratamenduei buruzko informazioa aseguratutako ekintzak edo ezbeharrak kudeatzeko, baita osasun-laguntza fakturatzeko helburuekin.
- **Beste entitate aseguratzaile batzuk** (koaseguruetan).
- **Hirugarrenak** ezbeharrak kudeatzeko datuak ematen dituztenak.

d) Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. ("BBVA") erakundetik lortutako datuak:

- BBVA bezero ez bazara, zure telefonoari eta helbide elektronikoari buruzko datu eguneratuak jakinaraziko dizkigu, gure bezeroen datu zehatzak eta eguneratuak mantentzen une oro.
- Era berean, **zure onespena emandakoan**, datu hauen berri emango digute:
 - **Identifikatzeko eta harremanetarako datuak** BBVA-n.
 - **Kontratutako BBVA produktu eta zerbitzuen datuak:** kontratu zenbakia, kontratatutako produktuen muga, kontratatutako produktu eta zerbitzu motak, kontratuaren datuak (kontratuaren ezaugarriak), helbideratze kontua, arriskua BBVArekin, esku-hartzaileak eta kontratu horietako edozeinekin loturiko dokumentazioa.
 - **Datu soziodemografikoak:** adina, egoera zibila, helbidea, ikasketak eta lanbidea (kontratu mota, antzintasuna) edo kolektiboren batekoa zaren.
 - **Datu ekonomikoak:** hileroko diru-sarrera garbiak, kontuetako batez besteko saldoa, aktiboen saldoa, helbideraturiko ordainagiriak, helbideraturiko nominak, diru-sarrera eta gastuak, baita zure finantza kalifikazioari buruzko datuak ere.
 - **Transakzio-datuak:** zure kontuko mugimenduak, zure txarteletako mugimenduak, saldoak, sarrerak, ordainketak, transferentziak, zordunketak, ordainagiriak, helbideratzeak. Jatorria, xedea eta kontzeptua barne hartzen ditu eta transakzioari erlazionatutako hirugarrena, bai eta transakzioa nondik, eta noiz eta zein ordutan egin den ere.

(II) Aseguratu ez-hartzailea bazara:

BBVA Seguros-en zuzenean ematen dizkiguzun datu hauek eta aseguru-hartzailearen bidez jasoko ditugun datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikatzeko eta harremanetarako datuak:** izena, abizenak, NAN, pasaportearen edo AIZ, nazionalitatea, posta-helbidea, helbide elektronikoak, telefono finkoa, telefono mugikorra.
- **Sinadura-datuak:** eskuzkoa eta digitalizatua.
- **Kodeak edo identifikazio-datuak** erregistratutako erabiltzailearen eremuan sartzeko.
- **Kontratuaren datu ekonomikoak:** primak, aseguratutako kapitalak, zordunketa- eta ordainketa-kontua, ordainketen edo abonuen aldizkakotasuna.
- **Aseguratutako ondasunen datuak:** kontratua kudeatzeko eta prima mugatzeko beharrezkoak direnak.
- **Osasun-datuak:** BBVA Seguros-ekin kontratatu nahi dituzun produktuak sinatzeko eta kudeatzeko beharrezko direnean.
- **Beste iturri batzuetako datu pertsonalak ere bilduko ditugu:**
 - a. **Madiva Soluciones, S.L.:** higiezinaren, ibilgailuen edo bestelako ondasun higigarrien balorazioari buruzko informazioa.
 - b. **Publikoki atzi daitezkeen iturriak:** egunkari eta aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Administrazio Publikoen ebazpenak, katastroa, telefono-gidak, profesionalen elkargoetako pertsonen zerrendak.
 - c. **Iruzurra prebenitzeko zerrenda ofizialak,** adibidez, Europar Batasunak, Nazio Batuen Erakundeak edo Ameriketako Estatu Batuetako Atzerriko Aktiboen Kontrolerako Bulegoak argitaratutakoak.
 - d. **Informazio-sistema komunak** Pribatutasun-politika honetako 4.(I).d) atalean xedatutakoak.
 - e. **Osasun profesionalak, ospitaleak eta beste osasun-zentro batzuk,** BBVA Seguros-ekin indarrean dagoen aseguru-polizaren zati gisa laguntza emandakoak: osasunari eta estalitako tratamenduei buruzko informazioa aseguratutako ekintzak edo ezbeharrak kudeatzeko, baita osasun-laguntza fakturatzeko helburuekin.
 - f. Beste entitate aseguratzaile batzuk (koaseguruetan).
 - g. Hirugarrenak, ezbeharrak kudeatzeko datuak ematen dituztenak.

(III) Hirugarren batek kontratatutako aseguruaren onuradun bazara:

BBVA Seguros-en zuzenean ematen dizkiguzun datu hauek eta aseguru-hartzailearen bidez jasoko ditugun datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikatzeko eta harremanetarako datuak:** izena, abizenak, argazkia, NAN, pasaporte edo AIZ, nazionalitatea, posta-helbidea, helbide elektronikoak, telefono finkoa, telefono mugikorra.
- **Sinadura-datuak:** eskuzkoa eta digitalizatua.
- **Kontratuaren datu ekonomikoak:** primak, aseguratutako kapitalak, ordainketa-kontua, ordainketen aldizkakotasuna.
- **Beste iturri batzuetako datu pertsonalak ere bilduko ditugu:**
 - a. **Publikoki atzi daitezkeen iturriak:** egunkari eta aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Administrazio Publikoen ebazpenak, katastroa, telefono-gidak, profesionalen elkargoetako pertsonen zerrendak.
 - b. **Iruzurra prebenitzeko zerrenda ofizialak,** adibidez, Europar Batasunak, Nazio Batuen Erakundeak edo Ameriketako Estatu Batuetako Atzerriko Aktiboen Kontrolerako Bulegoak argitaratutakoak.
 - c. **Informazio-sistema komunak** Pribatutasun-politika honetako 4.(I).d) atalean xedatutakoak.
 - d. **BBVA Taldea:** BBVAk Testamendua kudeatzeko emandako informazioa
 - e. **Hirugarrenak** ezbeharrak kudeatzeko datuak ematen dituztenak.

BBVA Seguros-ek zure datuak behar bezala eguneratuta eduki ditzazula eskatzen dizu, une oro tratatzen ditugun datuak egiazkoak direla bermatzeko. Aldatzen badituzu, jakinarazi diezaguzu lehen baino lehen egungo egoeraren berri izan dezagun.

4. Zertarako eta zergatik (legitimazio oinarria) tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

BBVA Seguros-en zure datu pertsonalak tratatzen ditugu:

(I) BBVA Seguros-eko bezeroa bazara:

a) **Kontratatuta duzun edo eskatzen duzun aseguria kudeatzeko, eta kontratua osorik betetzen dela bermatzeko.**

BBVA Seguros-ekin daukazu kontratu-harremana gauzatzeko, helburu hauekin tratatuko dira zure datu pertsonalak:

- Bezero berri gisa alta emateko eskabide prozesuan identifikatzeko eta kudeatzeko, eta prozesu horretan laguntzeko.
- BBVA Seguros-en produktu eta zerbitzuei buruz eskatutako kontratatu aurreko simulazioak exekutatzeko.
- Eskatu eta kontratatzen dituzun produktuak eta zerbitzuak behar bezala kudeatzeko.

Barne ditu BBVA Seguros-ekin kontratu aurreko eta kontratuko harremana garatzea, mantentzea eta jarraipena egitea (besteak beste, beharrezkoak diren osasun-galdetegiak

edo mediku-azterketak egiteko); ezbeharrak tramitatzea; beharrezkoa den laguntza eta kalte-ordaina edo kasuan kasuko prestazioaren ordainketa zehazteko; eta aseguratuari, onuradunari eta/edo asistentzia-gastuen kaltetuari ordainketa edo diru-itzultzea kudeatzeko.

- Zure kontsultei arreta emateko eta zurekin daukagun harremana jarraitzeko, BBVA Seguros-ekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuei lotuta.
- Jakinarazpen ez-komertzialak bidaltzeko BBVA Seguros-ekin kontraturik dituzun produktu eta zerbitzuetatik eratorritako harremana kudeatzeko, bai eta zerbitzuei buruzko zure iritzia ezagutzeko ere.
- Arrisku egoerak, ez-ordaintzeak, gertakari edo erreklamazioak kontrolatu, aztertu eta kudeatzeko; beharrezko ekintza egiteko egin beharreko ikerketa eta/edo ezagutzeko edozein tratamendu ere.
- Zure aseguru-datuak modu errazean erakusteko BBVA Seguros-ek momentu bakoitzean zure eskura jarritako bideen bidez.
- BBVA Seguros-ekin kontratatuta dituzun produktu eta zerbitzuak kudeatzeko BBVA Seguros-ek zure eskura jarritako bideetarako sarbidea kudeatzeko.

Kasu hauetan zure datu pertsonalak **tratatzeko baimena ematen digun** legitimazio-oinarria **BBVA Seguros-ekin kontraturiko edo eskaturiko produktu eta zerbitzuen** kontratuaren exekuzioa da.

b) Berraseguru- eta koaseguru-kontratuak kudeatzea

Gainera, Erakunde Aseguratzailen eta Berraseguratzailen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko 20/2015 Legeak (“**EABAGKL**”) BBVA Seguros eta gisako aseguratzaileei datuak tratatzen uzten die berraseguru- eta koaseguru-kontratu bat egiteko eta kudeatzeko esparruan, eta beraz, baliteke zure datuak berraseguratzeko eta koaseguratzeko erakundeei ematea, berraseguru- edo koaseguru-kontratu bat egiteko.

Lotutako eragiketak egitea ere sartzen da, besteak beste estatistika- edo aktuariotza-azterketak egitea, arriskuen edo ikerketen analisiak egitea edota berraseguratzeko edo koaseguratzeko jarduerarekin lotutako edo handik eratorritako bestelako jarduerak.

Koaseguruetan zure datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen digun **legitimazio oinarria** BBVA Seguros-ekin kontraturiko edo eskaturiko produktu eta zerbitzuen **kontratuaren egikaritzea** da.

Berraseguratzeko kontratuetan **legitimazio-oinarria** BBVA Seguros-en **interes legitimoa** da, egokitutako kaudimen-ratioak mantentzeko eta dituen arriskuak murrizteko, Espainiako aseguruaren legedian eta, bereziki, EABAGKLeke xedatutakoari jarraikiz.

c) BBVA Seguros-i aplika dakizkiokeen lege-betebeharrak betetzeko

BBVA Seguros-ek legeek ezarritako lege-betebeharrak bete behar ditu eta, bereziki, aseguru-sektoreko jarduerarekin lotutako legeak:

- **BBVA Seguros-ek egiten duen jarduera aseguratzailearekin lotutako araudia**, adibidez: (i) EABAGKL; erakunde aseguratzaile eta berraseguratzaileen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua (ii) Aseguru-kontratuen 50/1980 Legea; edo (iii) 3/2020 Errege Dekretu-legea, otsailaren 4koa, hainbat sektoretako kontratazio publikoari buruzko Europar Batasuneko hainbat zuzentarau Espainiako antolamendu juridikoan sartzen dituen presazko neurriak hartzen dituen; aseguru pribatuena; pentsio-plan eta -funtsena; zerga-arlokoa eta zerga-auziena.

Aurreko araudi-oinarri horren arabera, BBVA Seguros-ek zure datu pertsonalak trata ditzake BBVA Seguros-ek, bakarka edo modu agregatuan, izan ditzakeen arriskuak etengabe identifikatu, neurtu, zaindu eta kudeatzeko beharrezkoa den informazioaren (aldizkakoak eta etengabeak) estrategiek, prozesuek eta prozedurek dituzten arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko arauak eta gidak betetzeko.

Besteak beste, aseguratzaileen sektoreko entitateekin trukaturako informazioak eratorritako jarduerak, Administrazioekin eta/edo Agintari Publikoekin izandako komunikazioak, bezeroei buruzko arrisku-profilak sortzea, BBVA Seguros-ek eduki beharreko hornidura teknikoaren zenbatekoa zehaztea edo BBVA Seguros-ek egindako estatistika-azterketak edo polizen, ezbeharren, ordainketen eta partaidetzen erregistroa.

- **10/2010 Legea, Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Prebenitzeari buruzkoa.** Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea saihesteko, BBVA Seguros-ek betebeharrak hauek ditu:
 - Zuri buruzko informazioa jasotzea zu identifikatu ahal izateko araudi horrek ezarritako diligenzia betebeharrak betetzeko.
 - Legeak hala eskatzen duenean, BBVA Seguros-en bitartez egindako eragiketen analisiak egitea, eta
 - Estatuko nahiz kanpoko agintariei eragiketen berri ematea, Europar Batasunaren barruan eta bertatik kanpo, zenbait herrialdeetako legerian eta euren artean sinatutako akordioetan oinarrituta.

Tratamendu horretarako **legitimazio-oinarria** da **azaldutako araudiak ezarritako lege-betebeharrak betetzea**.

- d) **Beste erakunde aseguratzaile eta aseguratzaileen sektorearekin lankidetzan aritzen diren erakundeekin komunean diren fitxategietako informazioa kudeatu eta kontsultatzea, estatistika, aktuariotza eta iruzurra-prebenitzeko asmoz, baita aseguratzaile teknikaren ikasketak egiteko ere.**

EABAGKL-k BBVA eta gisako erakundeei aukera ematen diren iruzurra prebenitzea errazten dieten fitxategi komunak sortu eta kontsultatzeko, ezbeharrak likidatzeko eta elkarlan estatistiko aktuarialerako, tarifak egin eta arriskuak aukeratu ahal izateko.

Fitxategi kudeatu hauetan ematen dugu informazioa eta egiten ditugu kontsultak:

- **Automobil Aseguruen Historiaren Informazio Sistema (SIHSA)**, kontratua izenpetzeko unean ezbehar kopuruei buruzko datuen informazio zehatza eta kontrastatua ematea du xede, azken bost urteetako polizen eta ezbeharren bidez lotutako informazioa batuta, motorrezko ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuan zehaztutako baldintzei jarraikiz.
- **Automobilaren Informazio Sistema Erabateko Galera, Lapurreta eta Suteak (SIAPTRI)**, bere xedea da (i) balizko anomalia-egoerak eta iruzur-arriskuak modu automatizatu batean identifikatzea erraztea, Segurtasun Indar eta Gorputzekin lankidetzan aritzea aseguraturako motorrezko ibilgailuekin lotutako balizko lapurreta-delituak eta -iruzurrak ikertzea erraztuta; eta (ii) Instituto de Investigación sobre Reparación de Vehículos, S.A. erakundearekin, Segurtasun Indar eta Gorputzekin eta Trafikoaren Zuzendaritza Orokorrarekin lankidetzan aritzea, lapurtutako eta kalte-ordaindutako ibilgailuak identifikatu eta aurkitzeko, EABAGKL-ren 99.7 artikuluan xedatzen denari jarraikiz.
- **Iruzurra Prebenitzeko Informazio Sistema Hainbat arlotako Aseguruetan**, bere xedea da (i) iruzurra prebenitu eta hautematea, bai erakunde aseguratzailera prebenitzeko poliza jaulki eta gero, bai aitortutako ezbeharretan egindako iruzurrak hautematen eta (ii) Segurtasun Indar eta Gorputzekin lankidetzan aritzea aseguraturako ondasunekin lotutako balizko lapurreta- eta iruzur-delituak ikertzea errazteko, EABAGKL-ko 99.7 artikuluan xedatzen denari jarraikiz.

Legitimazio-oinarria da Araudi aseguratzailetik eratorritako **lege-betebeharrak betetzea**, eta bereziki, EABAGKL-n bildutako BBVA Seguros-en aseguruan iruzurra hauteman, prebenitu eta jazartzea.

Halaber, deskribatutako informazio-sistemekin lotuta, datuak babesteko eskubideak gauzatzeko, Tecnologías de la Información y Redes para las Entidades Aseguradoras, S.A. erakundeari idatz diezaioketu helbide honetara: Ctra. Las Rozas a El Escorial Km 0,3 Las Rozas 28231 MADRIL. Informazio-sistema hauetako zure datuen tratamenduari buruzko gainerako informazioa aurkitzeko, joan Aseguratzailen eta Berraseguratzailen Espainiako Batasunaren (www.unespa.es) eta Tecnologías de la Información y Redes para las Entidades Aseguradoras, S.A. (www.tirea.es) erakundearen web-orrietara.

e) Arrisku-profilak egitea

Kontratata dituzun edo gurekin kontratatu nahi dituzun produktuei buruz aurreko 4.(I).c) atalean deskribatu diren aseguru-araudiak betetzeko BBVA Seguros-ek egindako jardueren artean, produktuaren zailtasuna aztertu eta baloratu behar dugu zure profilaren arabera, eta harreman horretatik eratorritako arriskuak hautatu eta tarifa ezarri behar diogu; hori guztia, arriskua aseguragarria ote den aztertzeko xedez eta, aseguratzeko parametroen barruan egonez gero, zein baldintzatan eta zein prezioekin (prima) har daitezkeen arriskua eta, hala balegokio, behar diren xedapenak exekutatzeko.

Arriskuak aztertzeko jarduera horiek beharrezkoak eta BBVA Seguros-en jarduerari dagozkionak dira, gurekin izenpetzen duzun polizaren arriskuak eta tarifak zehazten uzten digulako, izan daitezkeen arriskuak mugatuz.

Kontratatu duzun edo kontratatu nahi duzun produktu motaren arabera, zure arrisku-profila osatzeko zera ebaluatuko dugu:

- Datu soziodemografikoak: helbidea, adina, lanbidea, egoera zibila, familia-egoera.
- Aseguratutako ondasunaren datuak.
- Osasun-datuak eta ohituren informazioa.

Era berean, gure eta, publikoki atzi daitezkeen edo BBVA Seguros-ek atzitzeko betebeharra duen hirugarrenen iturrietako informazioa erabiltzen dugu, aseguru-sektoreko araudiari jarraikiz:

- Aurreko 4.(I).d) atalean xedatzen diren informazio-sistema komunak.
- Iruzurra prebenitzeko informazio-sistemak.

Tratamendu honetarako **legitimazio-oinarria** da aseguruari eta berraseguruari buruzko araudiak ezarritako lege-betebeharrak betetzea.

Gainera, BBVA bezero bazara eta zure datu pertsonalak egiteko datu pertsonalak jakinarazi eta produktuetan eta zerbitzuetan zuri egokitutako prezio bat eskaintzeko onespena eman badiguzu, BBVA Seguros-ek datu horiek gehituko ditu arrisku-profilak egiteko eskaintako produktuaren prezioa (prima) hobetzeko.

Datu pertsonalak tratatzeko **legitimazio-oinarrria** da xede horietarako BBVAk zure datuak emateko emandako onespina.

Egokitutako prezio bateko eskaintzarako profilak egiteko aplikatutako analisi-ereduen arabera, erabaki automatizatu desberdinak har ditzakegu. Modu horretan har dezakegun erabakiaren xehetasunak kontsultatzeko, ikusi esteka hau: https://www.bbvaseguros.com/wp-content/uploads/2022/10/Informacion_ampliada_respecto_a_decisiones_individuales_EUS_e_di_linearized.pdf. Eskubidea duzu operadore batek hartutako erabakia azal diezazun, horri buruzko iruzkinak jasotzeko eta erabakia aurkaratzeko ere.

f) Zure datu pertsonalak BBVAri komunikatzea

Zure onspina ematen badiguzu, BBVA Seguros-ek zure identifikazio-datuak, datu soziodemografikoak, gurekin izenpetutako kontratuaren informazio ekonomikoa jakinaraziko dizkio BBVAri, baita kontratatutako bermeak, prestazioen ordainketak, muga-egunak, erreskateak eta errentak ere. Komunikazio horri esker, BBVAk:

- BBVA Seguros-eko datuak askotariko helburuak dituzten BBVAren analisi- eta merkataritza-ereduetan gehitu ahal izango ditu; adibidez, produktuak eta zerbitzuak hobetzeko, eta promozio-, merkataritza- eta arriskuaren kontrol-xedeak dituzten estatistikak eta analisi-azterketak egiteko.
- BBVAk eskaintza askoz zehatzagoa egiteko bezero-profilak egin ahal izateko, BBVA Seguros-ekin daukazu harremanetik bildutako ezaugarriak eta informazioa aintzat hartu eta zuri buruz BBVAk duen informazioa komunean jarrita.
- Egiten dituen promozio- eta publizitate-ekintza pertsonalizatu ahal izateko (horrela ez dizu interesatzen ez zaizkizun produktuen publizitaterik emango, adibidez, jada kontratatuta daukazulako).

Datu pertsonalen berri emateak, ematea onartzen baduzu, ez du esan nahi zurekin izandako harremanean eskuratutako osasun-datuak BBVA Seguros-i ematea.

Legitimazio-oinarrria da azaldutako xedea duten datu pertsonalak BBVAri jakinarazteko zure onspinaemandako onspina. Atal honetan azaldutako tratamendurako zure baimena ematen diguzun ala ez aukeratu dezakezu, Datuen babeserako oinarritzko informazioan dagokion laukitxoan markatuz ("Nire datuak BBVAri jakinaraztea nahi dut, BBVA Seguros-etik jasotako datuak erabiliz, BBVAk eskaintzen dizkidan produktuak eta zerbitzuak hobetu eta pertsonalizatzeko; aseguruari buruzko merkataritza-kanpainak egiteko eta merkataritza- eta arrisku-estatistikak eta -azterketak egiteko").

Helburu horietarako BBVAk zure datu pertsonalen tratamenduari dagokionez une oro konfiguratu dituen hobespenak errespetatuz tratatuko ditu zure datuak BBVAk.

Gogoratu edozein unetan aldatu ahal izango duzula zure aukera, baita aukerak konfiguratu ere, app-aren edo zure gestore edo bulegoaren bitartez.

g) Azterketa estatistikoak eta analisi-ereduak sortzea

BBVA Seguros-en, 4.(I).d) eta e) ataletan adierazitako ereduez gain, zure datuak erabiliz eredu analitikoak sortuko ditugu helburu hauetarako:

- Gure barne-prozesuak hobetu.
- Produktu eta zerbitzu berriak garatu eta hobetzea.
- BBVA Seguros-i interesgarri izan dakizkiokeen estatistikak, inkestak, aktuariotza-kalkuluak, batez bestekoak edo merkatuko azterketak egin.
- Iruzurraren aurka borrokatzeko tresnak hobetu eta dirua zuritzea saihestea.
- Ordainketa-ahalmena. ihes egiteko aukera, asegurdunaren batez besteko bizi-tza, berrerortzea edo ezbehar orokorrak kalkulatzeko.
- Kaudimenari buruzko analisi, aholkularitza (scoring edo joera ereduak, bezeroen segmentazioa, aurreikuspenak, aholkulariak, ete prezio-ereduak) xedeetarako.
- Negozioaren jarraipena eta erabakiak hartzeko txostenak sortzea.

Horretarako, posible bada, BBVA Seguros-ek identifikazio eta harremanetarako datuak ordeztuko ditu (Datuen sailkapenak atalean adieraziak) kode batez, beti modu independente eta seguruan gordez bezero bakoitzari zein kode dagokion esaten duen zerrenda. Ezinezko datu gisa ezgutzen da hau eta titularraren identitatea gordetzen da.

Halaber, batzuetan maskaratzea (datuak disimulatu edo mozorrotzen dira) teknika edo agregazioa (datuen batura eta konbinazioa) erabiltzen dugu gure bezeroen identitatea babesteko eta segurtasunean arrailik izanez gero, bermeak eskaintzeko, identifikazioa saihestuz.

Legitimazio oinarria **atal honetako lehen paragrafoan azaldutako xedeetarako, BBVA Seguros-ek eskaintako produktuen eta zerbitzuen kalitate eta funtzionalitatea etengabe hobetzeko duen interes legitimoa** da.

Ados ez bazaude, horri uko egiteko eskubidea izango duzu, egoki irizten badiozu, honako helbide honetan: derechosprotecciondatosbbvaseguros@bbvaseguros.es

(II) Aseguratua edo onuraduna bazara

Datu pertsonalak mugatuago tratatuko ditugu, eta helburu hauetarako bakarrik:

- Kontratutako aseguru kudeatzea, aseguratu eta/edo onuradun gisa agertzen zaren BBVA Seguros-ekin hartzaileak kontratatutako produktuekin eta zerbitzuekin lotutako **kontratu gauzatzeko**.
- Koaseguru-kontratuak kudeatzea, BBVA Seguros-i eskatutako edo harekin kontratatutako produktuekin eta zerbitzuekin lotutako **kontratu exekutatzeko**.
- Berraseguratzeko kontratuetan **legitimazio-oinarria** BBVA Seguros-en **interes legitimoa** da, egokitutako kaudimen-ratioak mantentzeko eta dituen arriskuak murrizteko, Espainiako aseguru en legedian eta, bereziki, EABAGKLe xedatutakoari jarraikiz.
- **Lege-betebeharrak** eta BBVA Seguros-i aplika dakioken gainerako araudia betetzea, iruzurra prebenitzeko sortutako sistema komunak atzitzea barne.
- Arrisku-ereduak sortzea, erakunde aseguratzailen araudian xedatutako **lege-betebehar bat betetzeari** buruz.
- Legitimazio oinarria **BBVAk beti eskaintako zerbitzuen kalitate eta funtzionalitatea hobetzeko, eta produktu aukera zabal eta hobetu bat bezeroari eskaintzeko duen interes legitimoa** da.

Jarduera horiek BBVA Seguros-en bezeroentzako egindako jardueren antzekoak diren heinean, BBVA Seguros-eko bezeroei eskaintako aurreko atalean zehaztutako deskribapen bera da.

Aseguru kolektibo baten izenpetzea kudeatzen badugu, aseguratu kopuru handi batekin, osasun-datuak ere sartzen dira, halakorik balego, kontratu-harreman bada egoteagatik babestuta daude, kontratu egiteko beharrezkoak direlako. Baina, asegurua hartzailearen ardura izango da aseguratu datu pertsonalen tratamendu-informazioa gauzatzeko.

5. Zenbat denboran zehar gordeko ditu BBVA Seguros-ek zure datuak?

Kontratuzko harremanak indarrean dirauen artean gordeko ditugu datu pertsonalak. BBVA Seguros-ek bidali eta, azkenean, sinatzen ez diren aseguru-proposamenekin lotutako datuak laurogeita hamar (90) egunez gordeko dira, eskakizunean epe luzeagoa adostu ezean, eskakizun berrien kudeaketak bikoiztea saihesteko.

Behin kontratu-harremana bukatuta, BBVA Seguros-en zure datu pertsonalak blokeatuta gordeko ditugu:

- a. Legeak agindutako epeetan erreklamazioak egiteko eta lege ekintzetarako.
- b. Oro har, 10 urte, kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia aplikatuta.
- c. BBVA Seguros-i aplika dakioken sektoreko araudiari jarraikiz, beharrezkoa izan daitekeen gehieneko epea.

Epe horiek igarotakoan, datu pertsonalak suntsituko ditugu.

6. Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Aurretik azaldu moduan, BBVA Seguros-ek hirugarren hauei komunikatu dizkie zure datu pertsonalak:

- Zure onespina ematen badiguzu, eta aurrez adierazi dizugun moduan zure identifikazio-datuak, datu soziodemografikoak, gurekin izenpetutako kontratuaren informazio ekonomikoa jakinaraziko dizkio BBVAri, baita kontratatutako bermeak, prestazioen ordainketak, muga-egunak, erreskateak eta errentak ere.
- Osasun profesionalak, ospitaleak eta beste osasun-zentro batzuk, aseguratutako ekintzak edo ezbeharrak kudeatzeko, baita osasun-laguntza fakturatzeko helburuekin.
- Berraseguru eta koaseguru kasuetan, hirugarrenen erakunde aseguratzaileei kontratu-harremana kudeatzeko, beharrezkoa denean.
- Pribatutasun-politika honetako 4.(I).d) atalean adierazitako fitxategi komunak, estatistika, aktuariotza eta iruzurra-prebenitzeko asmoz, baita aseguratzaile teknikaren ikasketak egiteko ere.
- Legez behartuta gaudenean, aseguru-araudia betetzeko, nola kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzeko, gainbegiratze-agintariak; adibidez, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorra, Kapitalak Zuritzea eta Diruzko Arau Hausteak Prebenitzeko Komisioaren Zerbitzu Exekutiboa (SEPBLAC) eta Erregistroen eta Notariotzen Zuzendaritza Orokorra.
- Epaileak, Auzitegiak, Ministerio Fiskala eta/edo eskumena duten Administrazio Publikoak.
- BBVAri, Testamentuak kudeatu behar direnean.
- Heriotza Estalduraren Aseguru Kontratuen Erregistroari.
- Osasun Ministerioko Heriotzen Indize Nazionalari.

Zerbitzu egokia eman ahal izateko eta bezero gisa zurekin dugun harremana hobeto kudeatzeko, I. eranskinean aurkituko duzu BBVA Seguros-en kontura zure datuak erabiltzen dituzten enpresen zerrenda, kategoriatan, kontratatutako zerbitzuak emateko.

BBVA Seguros-i zerbitzuak ematen dieten hainbat sozietatek zure datuetan sartu ahal izango dute (datuen nazioarteko transferentzia). Transferentzia horiek egiten dira: (i) Europar Batasunaren babes-mailaren parekoa duten babes mailako herrialdeetara (Europar Batzordearen egokitzapen-baldintzak); (ii) kontratuaren klausula eredu bidez; edo (iii) legeak aurreikusitako egoki diren beste berme batzuk oinarri hartuz.

Edonola ere, datuak tratatzen diren herrialdeko araudiari jarraikiz zure eskubideak egoki babestuta daudela aztertu eta gero, BBVA Seguros-ek zerbitzu-hornitzaile horiekin datuen tratamendua bermatzen duten kontratuak izenpetzen ditu BBVA Seguros-en argibideei jarraikiz eta datuak babesteko araudiari jarraikiz.

Hartutako bermeen kopia bat edo gaiari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan gurekin helbide honetan: derechosprotecciondatosbbvaseguros@bbvaseguros.es edo dpo.seguros@bbva.com

7. Zeintzuk dira zure eskubideak zure datuak ematean?

ESKUBIDEA	EDUKIA
Sarbidea	BBVA Seguros fitxategietako datu pertsonalak ikusi ahal izango duzu.
Zuzenketa	Datu pertsonalak aldatu ahal izango dituzu zuzenak ez direnean.
Kentzea	Zure datu pertsonalak kentzea eskatu ahal izango duzu.
Uko egitea	Zure datu pertsonalak ez tratatzeko eskatu ahal izango duzu; adibidez, tratamendu hori interes legitimoan oinarrituta dagoenean.
Erabilera mugatzea	Zure datuen tratamendua mugatzea eskatzeko eskubidea duzu, honako kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none">▪ Zure datuen zehaztasunaren inpugnazioa egiaztatzen den bitartean.▪ Tratamendua zilegi ez denean, baina zure datuak ezabatzeari uko egiten diozunean.▪ BBVA Seguros-ek zure datuak tratatu behar ez dituzenean, baina zuk zure erreklamazioak defendatzeko behar dituzunean.▪ Zure datuen tratamenduari ukok egin diozunean, interes publikoko egiteko bat burutzeko edo zilegi den interes bati erantzuteko, tratamendurako zilegi diren arrazoiak zurekiko gailentzen ote diren egiaztatzen den bitartean.
Portabilitatea	Formatu elektronikoan jaso ahal izango dituzu emandako datu pertsonalak eta BBVA Seguros-ekin izandako harremanetan lortutakoak ere, eta beste entitate bati bidali.

8. Arreta-bideak

derechosprotecciondatosbbvaseguros@bbvaseguros.es

BBVA Seguros
Departamento de Calidad
Calle Azul, 4. 28050 Madrid

Zure datu pertsonalak ez ditugula araudiarekin bat etorri tratatu uste baduzu, Datuen Babeseko Delegatuarekin jar zaitezke harremanetan dpo.seguros@bbva.com helbidean

Hala ere, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Espainiako Datuen Babeserako Agentziaren aurrean (www.aepd.es)

Eskubide horiek gauzatzea doakoa da.

Era berean, emandako baimena erretiratu dezakezu edozein unetan, honek tratamenduaren zilegitasunari eragin gabe, derechosprotecciondatosbbvaseguros@bbvaseguros.es helbidera eskaera bat bidalita.

ERANSKINA I: BBVA Seguros-en zerbitzuak ematen dituztenen kategoriak (datu pertsonalak atzi ditzakete)

- Aseguru-agentek.
- Telekomunikazio-zerbitzuak.
- Ikuskaritza- eta aholkularitza-zerbitzuak.
- Finantza-zerbitzuak, bankuko eta bankuz kanpoko zerbitzuak.
- Finantza-zerbitzuen beste jarduera osagarriak.
- Trebakuntza-zerbitzua.
- Konfiantzazko hirugarrenen zerbitzuak.
- "Contact center" zerbitzuak.
- Kalitate-inkesten zerbitzuak.
- Posta zerbitzuak, banaketakoak eta mezularitza.
- Ordainagiri sorten zerbitzua.
- Segurtasun fisikoko zerbitzuak.
- Inprimaketa eta gutunetan sartze zerbitzuak.
- Artxibatze, zaintza, biltegiatze eta digitalizazio zerbitzuak.
- Dokumentuak kendu eta deuseztatzeko zerbitzuak.
- "Backoffice" zerbitzuak.
- Administrazio-zerbitzuak.
- Enpresei laguntzeko beste jarduera batzuk.
- Publizitate- eta komunikazioko-zerbitzuak.
- Jarduera juridikoko zerbitzuak.
- Berreskuratze- eta epai-kudeaketa zerbitzuak.
- Ezbeharren kudeaketa-zerbitzuak.
- Arrisku-analisen zerbitzuak
- Korporazioaren gizarte erantzukizuneko zerbitzuak.
- Mantentze-zerbitzuak.

Erlazionatutako zerbitzuak emango diren tokia: Espainia.

- Informatika-zerbitzuak:
 - Plataforma teknologikoko zerbitzuak.
 - Hosting zerbitzuak.
 - Datuen prozesatze-zerbitzuak.
 - Arkitektura eta ingeniaritza zerbitzuak.
 - "Backup" zerbitzuak.
 - Negozio-jarraitutasun zerbitzuak.
 - Zaintza elektronikoko zerbitzuak.
 - Informatika aholkularitza-zerbitzuak.
 - Segurtasuneko eta zibersegurtasuneko zerbitzuak.
 - Informazioko teknologekin eta informatikarekin lotutako beste zerbitzu batzuk.

Zerbitzuak emango diren tokia: Espainia.

BBVA Seguros-i zerbitzuak ematen dieten hainbat sozietatek zure datuetan sartu ahal izango dute (datuen nazioarteko transferentzia). Transferentzia horiek egiten dira: (i) Europar Batasunaren babes-mailaren parekoa duten babes mailako herrialdeetara (Europar Batzordearen egokitzapen-baldintzak); (ii) kontratuaren klausula eredu bidez; edo (iii) legeak aurreikusitako egoki diren beste berme batzuk oinarri hartuz.

Eguneratze-data: Maiatza 2024